



---

## PRENTSA OHARRA

### “EMAKUMEA LANEAN”

**Bilbon 2015ko martxoaren 25an.** Bilboko Euskal Museoak “Emakumea lanean” argazki-erakusketa aurkezten du, Vitoria-Gasteizko “Pilar Aróstegui” Udal Artxibategiko irudiekin, eta BBK Fundazioak ekoitzi eta atondua.

Erakusketa zuri-beltzeko berrogei irudiz osatuta dago, eta, horietan, Euskal Herriko emakumeek XX. mende hasierako bizitzako hainbat esparrutan egiten zituzten lanetako batzuk ikus daitezke.

la ehun urte igaro dira erakusketako argazkietatik gaur egunera arte. Aldi horretan, aldaketa sakonak izan dira emakumeari eta lan munduari dagokienez. Emakumezkoak lan munduan sartzea XX. mendeko aurrerapauso handienetakoa izan zen, zalantza barik.

Erakusketari esker, eraldaketa hori egiaztatu daiteke. Iraganeko irudiak dokumental bihurtzen dira, eta, horrela, egungo belaunaldiak historiaren, etnografiaren eta soziologiaren esparruan sar daitezke. Administrazio eta merkataritzako lanetan jardun zuten aitzindariak ezagutzeko aukera ematen du, baita tradizioetatik emakumeen berezko lantzat hartzen zirenetan jardun zutenak ere, adibidez, txokolate-dendako saltzaileak, kapelak eskuz egiten zituztenak edo josteko makinari eragiten ziotenak.

Landa-inguruari eta itsasoari lotutako lanak ere islatzen dira erakusketako argazkietan; izan ere, emakumeek, behintzat gizarte klase apalenetakoek, indar handia izan dute mendeetan leku horietan, eta gaur egun ere badute. Irudietako batzuetan, emakumeak zeregin latzak gauzatzen agertzen dira, adibidez, kaian zamalanetan edo soloak goldatzen.

Erakusketak emakumeek kulturaren, dantzaren, munduan izan duten presentzia ere islatzen du, operetako dantzarien irudien bitartez.

“Emakumea lanean” erakusketan aurkezten diren argazkiak hainbat argazkilarik profesionalen lana dira: Ceferino Yanguas Alfaro (Fitero 1889–Vitoria-Gasteiz 1970), Enrique Guinea Maquibar (Vitoria-Gasteiz 1875–1944) eta Salvador Ramón de Azpiazu Imbert (Vitoria-Gasteiz 1867–Madril 1927) argazkilarienak, besteak beste. Artista horiek eguneroko bizitzaren alderdiak islatzen jakin zuten, obrei asmo sortzailea gehituta, eta horrek are baliotsuago bihurtzen ditu.

Argazki-erakusketa eguneroko bizitzaren objektuekin aberastu eta gauzatu da, eta bakoitzak istorio pertsonal bat dauka atzean, emakumeek jardun duten lan-esparruaren barruan: kaleak, landa, saltokiak, tailerrak, erietxeak eta antzokiak. Gaur egun, iraganeko memoria bizia bihurtu dira, Euskal Museoak egindako bilketa eta kontserbazio lanari esker.

## PRENTSAURREKOA

Eguna: osteguna, 26a

Ordua: 11:30

Aurkezten du: Sorkunde Aiarza anderea, Euskal Museoaren Koordinatzailea.

## ERAKUSKETAREN FITXA

Izenburua: "Emakumea lanean"

Antolatzaileak: Euskal Museoa. Bilbao. Museo Vasco

Ekoizpena eta errealizazioa: BBK Fundazioa

Lekua: Euskal Museoko aldi baterako erakusketen aretoa I (beheko solairua)

Egunak: 2015-03-26/2015-06-15

## ERAKUSKETARI LOTUTAKO JARDUERAK

### Visita gidatuak

### Hitzaldiak

"Emakumeak eta lana gizarte garaikidean. Harreman eztabaidagarria."

Hizlaria: Arantza Pareja Alonso

2015-04-23 (19:00etan)

## BISITARIENTZAKO INFORMAZIOA

Ordutegia: astelehen, asteazken, ostegun eta ostiralean, 10:00etatik 19:00etara / Larunbatetan, 10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara / Igandeetan: 10:00etatik 14:00etara. Astearteetan, itxita.

Orokorra: 3 €

Murriztua: 1,5 € (ikasleak eta 10 lagunetik gorako taldeak)

12 urtetik beherakoak eta 65 urtetik gorakoak, dohainik

Bilbao  
Bizkaia **MUSEOAK**

Euskal Museoa.Bilbao.Museo Vasco

Unamuno plaza

48006 BILBAO

Lidia Elola

Prentsa eta komunikazioa

Tel.: 944155423

press@euskal-museoa.org